

eraikikasi  
eraikikasi

1. erraztu

2. elkarlanean aritu

3. ez baztertu

4. demokrazian sakondu

eraikikasi

erraztu  
erraztu

# elkarri lagundu

nahi badiozu, ondorengo bide hauek erabil ditzakezu



- |  |                          |                              |                          |             |                          |                                      |                          |              |                          |            |
|--|--------------------------|------------------------------|--------------------------|-------------|--------------------------|--------------------------------------|--------------------------|--------------|--------------------------|------------|
| • bai, elkarriren dirulaguntzailea izan nahi dut (14 kuota urtean)<br>Diru-laguntzaile guztiek dohainik jasoko dituzte elkarri eta elkarrikasi aldizkariak | <input type="checkbox"/> | 1.500 pta.                   | <input type="checkbox"/> | 2.000 pta.  | <input type="checkbox"/> | 5.000 pta.                           | <input type="checkbox"/> | 10.000 pta.  | <input type="checkbox"/> | ..... pta. |
| • aportazio bakarra egin nahi dut  | <input type="checkbox"/> | 10.000 pta.                  | <input type="checkbox"/> | 25.000 pta. | <input type="checkbox"/> | 50.000 pta.                          | <input type="checkbox"/> | 100.000 pta. | <input type="checkbox"/> | ..... pta. |
| • bai, elkarriren ekimenetan lagundu nahiko nuke   | <input type="checkbox"/> | bai                          |                          |             |                          |                                      |                          |              |                          |            |
| • bai, nire etxean jaso nahi ditut elkarri eta elkarrikasi aldizkariak   | <input type="checkbox"/> | 4.000 pta.<br>(urteko kuota) |                          |             | <input type="checkbox"/> | 1.000 pta.<br>(hiruhilabeteko kuota) |                          |              |                          |            |

izen-abizenak \_\_\_\_\_ N.A \_\_\_\_\_

helbidea \_\_\_\_\_ herria \_\_\_\_\_

herrialdea \_\_\_\_\_ kode postala \_\_\_\_\_

banku edo aurrezki kutxa \_\_\_\_\_

kontu zenbakia(20 digito)

gipuzkoa  
madril etorbidea, 5 tartelanta  
eskuin eskailera - 20011 Donostia  
Tf. 943 45 93 75 fax. 943 45 07 58  
e-mail: elkarrit@encomix.es

nafarroa  
tutera kalea, 18 - 2G  
31003 iruñá  
tf. 948 24 84 00 fax. 948 24 92 88  
e-mail: elkarrii@encomix.es

araba  
estibalitz etorbidea 2 - 1. - 5. bulegoa  
01003 gasteiz  
tf. 945 25 61 76 fax. 945 28 00 97  
e-mail: elkarrig@encomix.es

bizkaia  
SVRNE 209. bulegoa. arenal, 5  
48005 bilbo  
tf. 94 479 03 16 fax. 94 415 80 03  
e-mail: elkarrib@encomix.es

# aurkezpena

«Bake-prozesua» azken aldian espresiorik erabilienetakoan bilakatu da. Beharrezkoa, garrantzitsua edo desiratu, baina aldi berean, konplexua eta ziurtasunik eskaintzen ez duen zerbait dela soma genezake. Baina gure interesa pizten duela argi dago, etorkizunari, etorkizun hobeago bati atea ireki baitzitzio. Zer den somatu eta imajina badezakegu ere, egia da, bestalde, bake-prozesua berria eta ezezaguna dela gure artean.

Ezer baino lehen, sortzen zaigun premia bake-prozesua zer den jakitea da. Eta berehala, aurrenengo honekin batera, bigarren kezka bat datorkigu burura: «zer egin dezaket nik? Lagundu, bai noski, baina nola?». Bake-prozesuari lagundu nahi dion edonork galdera bikoitz honekin topo egiten du: bake prozesua zer den eta «nire-gure» papera zein den jakitea, alegia.

elkarrik ezin ditu, eta ez du nahi, erantzun biribil eta ukaezinak eman, baina bake-prozesuaren inguruan guztion artean egitea komeni den eztabaidarako lagungarriak izan daitezkeen ekarpenak, iradokizunak, iritziak, proposamenak edo ideiak eskaini ditzake. Hau da eskuartean duzun aldizkari soil honen helburua. Datozen hilabeteetan banatuko ditugun lau argitalpenek osatzen duten sailaren lehena duzu, honako hau.

Sail guztiaren izenburua «Eraikikasi» da, izaera propioa duten bi aditzek osatzen duten hitz joko bat eginez: ikasi eta eraiki. *Ikasi*-rekin jakin beharreko guztiaren jabe ez garela, jarrera irekia dugula eta besteengandik jasotzeko prest gaudela esan nahi da.

*Eraiki*-rekin berriz, ekarpenak egiteko, aurrera egiteko eta eraikitze borondatea dugula erakusten da. Hau da material hauek egitera bultzatu gaituen xedea hauxe da: ikasteko eta eraikitze hausnarketa bat proposatzea.

Argitalpen bakoitzak ere bere izenburua du. Lehenengo honek, «erraztu»; bigarrenak, «elkarlanean aritu»; hirugarrenak, «ez baztertu»; eta laugarrenak, «demokrazian sakondu». Bake-prozesu batek egin beharreko ibilbidean murgiltzeko lau aztarna oso baliogarri dira, bai goi-mailako erantzukizuna duen politikariarentzat, baina baita herritarrarentzat ere. Lehen lan honetan, bake-prozesu batek duen esanahian eta garrantzian eta «bideak ireki» izena eman diogun lehen irizpideak duen esanahian sakonduko dugu.

Lehen argitalpen honek hurrengo atal hauek ditu:

1. Bake-prozesuari buruzko hamar eduki.
2. Adibide bat.
3. Bakarka zein taldeka gogoeta egiteko gidoia.
  - 1 Eranskina. Aportazio-orria eta
  - 2 Eranskina. Inkestak egiteko liburuxka.

Material hau baliogarri suerta dakioke bake-prozesuaren esanahiaren inguruan pentsatu nahi duen edonori. Baina erabilera pertsonalaz gain, testu hauek talde-lanerako baliogarriak izan daitezke, edozein taldek, elkartek edo ikastetxek gure herrian abian jartzen ari den bake-prozesuaren inguruko gogoeten trukaketa irekia egin nahi izanez gero.



# bake proz

## zer da bake-prozesua, gaur eta hemen

### 1. Definizioa. Bi elementuk bat egiten dute

Bake-prozesua ondorengo bi faktore hauek bat egin eta garatzen diren garaia bezala definitu dezakegu:

- distentsio, indarkeriarik eza eta humanizazio egoera bat; eta
  - alderdi politiko guztien artean eta bazterketarik gabe osatutako elkarrizketa, negoziazio eta akordiorako mahai edo foro bat.
- Aipatutako bi faktore hauek gatazka mantendu duten arazoak konpontzeko bokazioa dute.

### 2. Ebaluazioa. Bi termometroen garapena

Indarkeriarik eza eta elkarrizketa dira bake-prozesuaren funtsezko osagaiak eta aldi berean, haren osasunari buruz informatzen gaituzten adierazle edo termometroak. Indarkeriarik gabeko egoera eta elkarrizketa-mahaia piskanaka bermatzen joatea bakerako aurrerapen sendoaren seinale garbiak dira. Bitako adierazle bat falta denean, berriz, ezin dugu bake-prozesu eraginkor batez hitz egin.

### 3. Helmuga. Guztion artean adostutako konponbidea lortzea

Bake-prozesu batek ez du arazorik gabeko gizarte idilikoa bilatzen, baizik eta bere gatazkak positiboki —modu baketsuan eta demokratikoan— konpontzen ikasiko duen gizarte dinamikoa. Modu berean, bake-prozesu bateko akordioek ez dituzte ukitzen materia gehiegi eta ez dira saiatzen gizartea unifomizatzen ere. Akordioak murriztuak, oso oinarritzkoak dira eta gehienbat joko politikoari eta giza eskubideen errespetuari eta bermeari eragiten diete. Gizarte batek proiektu sozial eta politiko anitzten arteko konfrontazio demokratikoa modu eraikitzailean garatu ahal izateko, oinarritzko kontsentsu minimo batzuek egitearekin nahikoa du —joko-arauei buruzko akordioa, alegia—. Honela, bake-prozesua, elkarrizketa eta indarkeriarik eza, pixkanaka, enfrontamenduaren eta biolentziaren lekua hartzen doazen trantsizio bat bezala uler daiteke. Erruduna bilatzetik, guztion artean eta guztiontzat konponbidea bilatzera igarotzen den prozesua da. Gatazka bortitzaren ezaugarri nagusia erruduna bilatzea da, bake-prozesuaren ezaugarri nagusia eta helburua, berriz, denontzat baliogarria den konponbidea bilatzea.

### 4. Ibilbidea. Prozedura demokratikoak eta eduki integratzaileak

Bake-prozesua, elkarrizketa, akordioa eta herri-konsulta erreskadan gertatzen diren prozedura demokratikoez eginiko bidea da. Honekin batera, ibilbide honetan funtsezkoa da ideia edo eduki integratzaileak bilatu eta aportatzea. Eta azken honek sokeneko arazoetan murgiltzea eta giza eskubideetan eta printzipio demokratikoetan sakontzea eskatzen du. Helburu nagusia elkarbizitzarako akordioak hobetzea izanik beti, honela, eraikiko du bake-prozesuak tradizio politiko guztiek bat egingo duten markua.

### 5. Jarrerak. Eraikitzailearen gakoak

Bake prozesuaren ibilbiderako erregaia jarrera eraikitzailez osatua dago: erraztu (komunikazioa eta distentsioa aportatu eta aldarrikatzea); elkarlanean aritu (urruntzen gaituenaren gaintetik, elkartzen gaituena indartu), ez baztertu (denok kontuan hartuko gaituzten proposamen eta prozesuak diseinatu) eta demokratizian sakondu (arrazonamendu, printzipio, prozedura eta helburu demokratikoak aplikatu). Azken batean, adiskidetze-kultura soziopolitikoa sortzea eta praktikan jartzean datza.



# Prozesuari buruzko hamar eduki

## hamar eduki

### zer da bake-prozesu bat erraztea

#### 6. Zer da erraztea?

Konpondu nahi den egoera konplexu, zail edo gatazkatsu batean, logikak eta senak gauzak errazteko lagungarria izango litzatekeen jarrera positiboa eskatzen dute. Hau da, laguntzeko prest agertzea. Bake prozesu bateko testuinguruan «bideak irekitzek» bi esanahi ditu:

- a) aurrerabide positiboari laguntzeko (errazteko) behar dena egitearen alde konprometitzea lehen pertsonan, singularrean nahiz pluralean; eta
- b) lagungarri suertatu daitekeen edozer laguntzeko, defendatzeko eta aldarrikatzeko konprometitzea.

#### 7. Nola erraztu daiteke?

Errazteak berarekin dakar bake-prozesuari laguntzeko norberak bakarka eman dezakeenari buruz gogoeta egitea. Aldi berean, aldarrika daitezkeen eta behar diren faktore lagungarri nagusietaz jabetzea eskatzen du. Faktore hauek erraz atzeman daitezke. Lehen begiradan gauzak errazteko logika atzemateaz gain, atxikipen sozial zabala izan ohi dute. Funtsean bi eremu ukitzen dituzte: distentsioa eta komunikazioa. Distentsioa eta komunikazioa bultzatuz irekitzen zaizkio bideak bake-prozesuari. Hain zuzen ere, gauzak errazteak bake prozesuaren bi ardatz handiak indartzea esan nahi du. Distentsioak indarkeriarik eza eta humanizazioa dakar, eta komunikazioak elkarrizketa eta topagune soziopolitikorako markoak indartzen ditu.

#### 8. Distentsioa

Distentsioa errazteko elementu nagusi bat da; honetaz gain, distentsioak esan nahi du humanizazioa, sufrimenduaren ezabapena, giza eskubideen errespetua eta indarkeriarik gabeko bidean konprometitzea. Distentsioak konfidantza sortzen du, eta bake-prozesua garatzeko zeharkatzea ezinbestekoak diren ateak, —orain arte itxiak— irekitzen laguntzen du.

#### 9. Komunikazioa

Komunikazioak, errazteko eremu gisa ulertuta, guztiz kontrako iritziak dituztenekin elkarrizketa, harreman zuzena edo eztabaida eraikitzailea mantentzeko konpromisoa hartzea esan nahi du. Mespretxurik gabeko hizkuntza errespetagarria garatzea esan nahi du, baita ere; gu bezala pentsatzen ez dutenen jarrera eta iritzietan dagoen egia eta arrazoi zatia ezagutzea. Honek guztiak hitz egitea, entzutea, bestearen lekuan jartzea edo enpatia ahalmena garatzea eskatzen du. Azken batez, eta hasteko, komunikazio-elkarrizketa ardatzak «bestearen» diskurtsoan, gutxienez, esaldi edo ideia positibo bat, edo gurearekin bat datorrenen bat bilatzea esan nahi du; eta hau kontuan hartuta, kontsentsu berriak bilatzeko eta zabaltzeko lan eraikitzaileari hasiera ematea.

#### 10. Partehartzea

Bake-prozesuan herritarren partehartzea nahitaezkoa da. Parte hartzea bideak irekitzea, erraztea da. Gure ingurutik, eta gizartearen oinarritik, komunikazioa eta distentsioa bultzatuz eta adiskidetze-kultura praktikan jarriz hartzen da parte; honela, bake-prozesuak beharrezkoa duen masa kritikoa sortzen joaten baita. Begiko dugun alderdiaren, sindikatuaren edo gizarte mugimenduaren bidez edo mobilizazioen bidez, har dezakegu zuzenenan parte. Era berean, parte har daiteke gure herriaren eremu txikienean bake-prozesuaren saioak egitea ahalbidetzen duten ekimen lokalak proposatuz edo hauetan parte hartuz. Horretarako, nahikoa da ekimen horiek integratzaileak, anitzak, positiboak, eraikitzaileak eta etorkizunari begiratzen diotenak izatea.



## adibidea

Euskal Herriko eta Irlandako gatazken artean dauden desberdintasun nagusien gaineratik, hango konponbide-ereduaren azterketa alderatuak, gurerako, balio didaktiko izugarria du. Irlandak aurreko egoeratik Stormont-eko akordio-raino eraman duen ibilbideak hemen adierazi dugun prozesu berdintsua deskribatzen du:

—Indarkeriarik ezak eta alderdi anitzeko elkarriketak bat egin dute.

—Guztien arteko konponbidea lortu da, inor baztertu gabe.

—Prozedura hauxe izan da: elkarriketa, akordioa eta herri-kontsulta.

—Sakoneko arazoetan murgildu dira, printzipio demokratikoetan sakondu dute eta elkarbizitarako akordioak hobetu dituzte.

—Bidea ireki, elkarlanean aritu, ez baztertu eta demokrazian sakondu bezalako irizpideen indarra nagusitu da.

Bideak irekitzeko jarrera nahitaezkoa izan da. Laurogeitamargarren hamarkadaren lehen urtetan, enfrentamendu bortitza bizi zuten. Hala ere, ordutik aurrera, distentsio eta komunikazio konpromisoak prozesuari bideak irekitzen joan dira.

Datu hauek guztiak Irlandako bake-prozesuari buruzko edozein argitalpenetan egiaztatu eta begiratu daitezke. elkarrik badu konponbide-prozesu hau aztertzen duen koaderno monografiko bat, «Irlanda: itxaropenari zabaldutako atea». Nahi duenak elkarriko ohiko telefono eta helbideetan eska dezake.

## bakarka zein taldeka gogoeta egiteko gidoia

Orain arte eskaini diren eduki teorikoetan sakontzen jarraitu nahi duenarentzat, bakarka egiteko edo taldeko bilera eta lana bideratzeko, gidoi orientatzailea jaso da hurrengo lerroetan.

- Orain arte irakurritako ideia guztietatik, zein da hobekien gogoratzen duzuna, gehien hunkitu zaituena edo burura etortzen zaizun lehena. Taldekako lanean iritziak elkartrukatu eta zergatiak bilatzen has daiteke.

- Bake-prozesu baten osasun adierazleen arabera —elkarriketa eta indarkeriarik eza— bakerako gure bidearen egoera baloratzen saia zaitetz.

- Zein gabezia atzematen dituzu bake-prozesuaren aurrerapen eraginkorrari begira? Egungo egoeran zein gaiek ireki diezaiokete bidea bake-prozesuari?

- Zure inguruan nola ireki diezaioketu bidea bake-prozesuari? Ikusten al duzu aukerarik edo modu zehatzik komunikazioa eta distentsioa bul-tzatzeko eta bidea irekitzeko ardatz nagusi gisa? Parte hartzeko modurik aurkitzen al duzu?

- Zure inguruan, zauden lekutik, beste aldeko muturrean dagoen norbaiten iritzien artean saia zaitetz ideia positibo edo bateragarri bat aurkitzen. Azter ezazu ea bateragarritasun horrek bion arteko elkarlana ahalbidetzen duen.

Hurrengo elkarrikasiaren edukien aurrerapena «elkarlanean aritu»: «Bake desiragarria "etsaien" arteko elkarlan prozesua da».